

BERMEO

Hartu-emonak lantzeko proiektua gertetan dabil herri eskolea

Bermeoko San Frantzisko herri eskolako irakasle bi eta ikasketa burua Italiara joan dira gaur, eta Sardiniako ikastetxe baten egongo dira zemendiaren 17ra arte, Europako Batasunak bultzatutako *Comenius* proiektuan parte hartzeko. Europako hainbat ikastetxeren artean sortzen dan hartu-emonetan oinarritua dago programea. Egunotan, Italia, Alemania eta Eskoziako ikasleekaz batuko dira, bakotzak bere esperientzien barri emoteko.

ONDARROA

Herriko hizkerea bultzatzeko bekea, Iparragirre eta Leonentzat

Naroa Leonek eta Gotzon Iparragirrek lortu dabe Ondarroako herri hizkerea bultzatzeko bekea. Bertako Udalaren Euskera Batzordeak gertautako bekea da. Hizkerearen ganeko materiala batzea eta itxurea emotea izango da euren lehenengo zeregina, eta erabilera praktikoa emotea, bigarrena. Horretarako, urtebete eukiko dabe. «Gure hizkerea ez galtzeko oinarriak ipiniko ditugu», azaldu deusie *Bizkaia*-ri Leonek eta Iparragirrek.

ZIERBANA

'Ehun urte baino gehiago arraunean' liburua idatzi dau Robertsonek

Euskal Herriko beste hainbat herritan gertatzen dan lez, Zierbanan be tradizio handia dauka arraunak, eta bertako historiaren ganeko liburua idatzi dau Jose Luis Robertsonek: *Ehun urte baino gehiago arraunean-Más de cien años bogando*. Doan banatuko ditue; Udalak, 500 bat ale, eta Arraun Alkartek, 1.000 ale inguru.

INGURUMENA. Europako Adierazle Komunen proiektua

Bizkaiak egingo dau EAKko txostena

Europako Batasunak aintzat hartuko dau agiria ingurumena jorratzerako orduan

BILBO. Gabonak 2002



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Irudian Oliver ikuskizuneko aktoreak eta '101 Dalmatar' ikuskizuneko lagunak, Foru Aldundiko Kultura diputau Ana Madariagaz batera.

'Oliver!' musika emonaldia eskainiko dau Bergarako Orfeoia gabonetan

2002 gabonetarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak gertau dituan ekitaldien barri emon eban Kultura diputau Ana Madariagak, atzo. Gabonak 2002 programearen barri, hain zuzen. Halandaze, umeendako ekitaldi bi antolatu ditue, eta beste bi, nagusiendako. Bergarako Orfeoia *Oliver!* musika emonaldia eskainiko dau. Charles Dickens *Oliver Twist* obra klasikoan oinarrituta dago ikuskizun hori. Eta euskertzen dan lehen klasikoa da. Bergarako Orfeoia euskeratu dau. Bestalde, Inchico konpainiaren *101 Dalmatar* musika emonaldia eskainiko dau Kultura Sailak, datozen gabonetan. Miriam Diaz Aroca aktoreak Cruela de Vil pertsonaia antzeztuko dau. Abenduaren 17an, 28an eta 30ean Euskalduna jauregiko entzutegian obra hori ikusteko aukerea eukiko dabe hara batzen diran umeek. Berrogeitik

Opera bi antolatu ditue nagusiendako

gora aktorek parte hartuko dabe. Eta benetako dalmata txakurrak erabiliko ditue. Horrezaz aparte, nagusiei zuzendutako opera bi gertau ditu Diputazinoko Kultura Sailak. San Petersburgoko Marriinsky Kirov opera konpainia ekarriko dabe horretarako. Modest Mussorgskyren *Boris Godunov* eta Alexander Borondinen *Igor Printzea* obrak eskainiko ditu konpainia horrek. Opera benetan ezagunak dira biak, eta nazi-noartean garrantzi handikoak. *Boris Godunov* operaa abenduaren 9an eta 20an antzeztuko dabe. Bilbon egingo daben bertsinoan Paata Burchuladze baxuak eta Milanoko Scala antzokiak hartuko dabe parte. *Igor Printzea* operaa abenduaren 21ean eta 22an eskainiko dabe. Eta Mijail Fokin koreografoaren *polonesa* dantza ezagunak dantzauko ditue.